

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELOSUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Behin betiko onestea hilerriaren erabilera arautzen duen ordenantza

Kontzeju honek, 2019ko uztailaren 20ko bilkuran, hasierako onespena eman zion herriko hilerriaren tasa arautzen duen ordenantza onartzeko taxututako espedienteari, jarraian azaltzen denari alegia, eta jendaurrean egon den bitartean horren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onetsia geratzen da. Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauaren 16.4 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, osorik ematen da argitara, indarrean sar dadin.

Hilerriaren erabilera arautzen duen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen foru arauan ezarritakoari jarraituz, kontzeju honek herriko hilerriaren tasa ezarri eta eskatuko du ordenantza honen arabera. Tarifa aplikagarriak jasotzen dituen eranskina ere ordenantza honen zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

Tasa honen zerga egitatea da ordenantza honen eranskinean jasotako tarifyan adierazitako zerbitzua ematea. Horrek ordaintzeko betebeharra sortzen du.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

Baimena edo zerbitzua eskatzen dutenak dira zergapeko subjektu pasiboak eta, dagokionean, emandako baimenaren titularrak.

IV. Zerga oinarria

5. artikulua

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza da zerga oinarria, tarifyan ezarrita dagoen bezala.

V. Kuota

6. artikulua

Zerga kuota zehaztuko da eranskinean jasota datorren tarifa aplikatuta.

VI. Sortzapena

7. artikulua

Zergapeko zerbitzuak jasotzean sortzen da tasa eta hura ordaindu beharra. Hau da, zerbitzuok eskatzen direnean sortuko da ordaintzeko beharra.

VII. Kudeaketa

8. artikulua

1. Subjektu pasiboek eskatuko dituzte behar dituzten zerbitzuak.
2. Zerbitzu bakoitzak bere likidazio berezia eta autonomia izango du.
3. Administrazio batzarrari dagokion tasa ordaindutakoan emango da baimena.

VIII. Arau haustea eta zehapenak

9. artikulua

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituko zaio zergei buruzko arau hausteei dagokien guztian, bai eta arau hauste bakoitzari dagozkion zehapenen kasuan ere.

IX. Azken xedapenak

Ordenantza honek testua osorik argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra, eta indarrean jarraituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Eranskina, herriko hilerriaren tasarena

Tarifak

1. epigrafea

Horma-hilobietan sartzea: Elosun erroldatutako herritarrak.

- Hilkutxa edo zerraldoa horma-hilobian sartzea: 50 euro.
- Errauntsak kutxategian ehorzteagatik ordaindu beharreko tarifa: 25 euro.

Elosun erroldatuta ez dauden herritarrak, baina bertan jaiotakoak direnak.

- Hilkutxa edo zerraldoa lurperatzea: 200 euro.
- Errauntsak ehorzteagatik ordaindu beharreko tarifa: 100 euro.

Elosuko herritarren eta bertan erroldatutakoen zuzeneko ahaideak (gurasoak, seme-alabak, anai-arrebak).

- Hilkutxa edo zerraldoa lurperatzea: 400 euro.
- Errauntsak ehorzteagatik ordaindu beharreko tarifa: 200 euro.

Elosuko herritarrak/bizilagunak(*).

(*). Bizilagun dira, Elosun erroldatuta egon ez arren, herrian etxe edo etxebizitza bat irekita dutenak.

- Hilkutxa edo zerraldoa lurperatzea: 400 euro.
- Errauntsak ehorzteagatik ordaindu beharreko tarifa: 200 euro.

Ehorzketa prestatzeko egiten diren obrak eta gastuak eskatzailearen kontura izango dira.

Horma hilobietan ehorzketak ordena honetan egingo dira: ezkerretik eskuinera eta behetik gora.

Lurreko hilobietan dauden gorpuzkiak horma hilobi komunera lekualdatu ahal izango dira, baldin eta hilerriaren antolamenduak edo horma hilobi gehiago eraikitzeko beharrak hala eskatzen badute eta senideek beste inora eraman nahi ez badituzte.

Ezingo dira hilerrian ehortzi eranskin honetan jasotako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak.

Tarifak kontzejuak egoki jotzen duenean eguneratuko dira.

Elosuko hilerri zerbitzuari eta haren administrazioari buruzko arautegia**1. artikulua**

Elosuko hilerria kontzejuarena da, eta hari baino ez dagozkio hilerriaren administrazioa, zaintza eta zuzendaritza. Agintari judizialen eta osasun alorreko agintarien esku utziko dira, berriz, legez dagozkien esku hartzeak.

2. artikulua

Hilerriaren administrazio, zaintza eta zuzendaritza lanetan, auzotarren batzarrak honako eginkizunak izango ditu: zerbitzuak antolatzea, aldeak banatzea, edozein hileta eskubiderengatik ordaindu beharreko eskubide eta tasak eskuratzea, bai eta arautegi honen arabera eta hilerrien osasun eta zaintza alorrei buruzko xedapen orokorren arabera hilerriaren barne erregimenari eragiten diotenak ere.

3. artikulua

Hilerriak merezi duen errespetuarengatik, bertara doazen guztiek ahalik eta isilen ibili behar dute, eta ezin izango dute moralaren edo edozein sinesmenen aurkako adierazpenik egin.

4. artikulua

Hilerrian ezin izango da inoiz saltzailerik egon, ez eta jendea bertara janariaz eta edariaz joan ere.

5. artikulua

Ikuskapen zorrotza egingo da jartzen diren apaingarriei eta inskripzioei dagokienez. Guztiz debekatuta dago tokiaren, sinesmen erlijiosoen edo ideia politikoen aurkako edozein adierazpide erabiltzea.

6. artikulua

Hilarriak jartzeko baimen berezia behar da. Hilarriak emakidadunarenak dira, eta haren kontura konpondu eta zainduko dira. Emakidaduna beharturik dago, tokiak merezi duen begirunez, hilarria zaintzera. Hilerrira doazen bisitarien diruzalekeria piztu dezakeen gauzarik jar ez dezaten gomendatzen zaie emakidadunei. Egon daitekeen edozein lapurretaren erantzukizunetik salbuetsirik dago kontzejua.

Hileta eskubidea**7. artikulua**

Hileta eskubidea, hau da, lurreko hilobiak erabiltzeko eskubidea, gizakien gorpuak edo gorpuzkiak lurperatzeari baino ez dagokio. Hilobien jabea kontzejua bera da.

8. artikulua

Hileta eskubidea emateko ondorioetarako, hilerria lurreko hilobitan banatuko da.

Lurreko hilobien eta horma hilobien gaineko hileta eskubidea

9. artikulua

1. Lurreko hilobietako eta horma hilobietako hileta eskubidearen emakida aldi baterako izango da, hain justu, 30 urterako.

2. Hileta eskubidea duen titularra hiltzen denean, eskubide horren jabe egingo dira haren oinordekoak, ezkontide alarguna edo, horrelakorik egon ezean, testamentu gabeko oinordetzarako eskubidea dutenak. Eskubide eskualdatzea al bait arinen jakinaraziko zaio kontzejuari.

10. artikulua

1. Horma hilobiak erabiltzeko baimenak auzotarren batzarrak emango ditu, interesdunak eskatuta.

2. Salbuespen gisa, senideek ez badute denborarik izan hilobia erabiltzeko baimena eskuratzeko, administrazio batzarreko errejidore-lehendakariak edo kide batek eman ahalko du baimena, zerga ordenantzako tarifetan adierazitako eskubideak ordaindu direnean.

11. artikulua

Ehorzte eskubidearen epea amaitutzat eman eta kontzejuari itzuliko zaio kasu hauetan:

- a) Interesdunari tasa ordaintzeko eskatu arren, ez badu ordaintzen.
- b) Hileta eskubidea arautegi honetan onartzen ez den beste norbaiti eskualdatzen zaionean.
- c) Hilobiak aurri egoeran daudenean. Eskubidea iraungitzat jo aurretik txosten teknikoa egingo da eta konpontzeko edo egokitzeko emandako epeak ez direla bete egiaztatuko da.
- d) Titularrak berariaz uko egiten dionean.

e) Hileta eskubidea arautegi honetan xedatutakoaren aurka erabiltzen denean. Ehorzte eskubidearen epea amaitu dela aitortzeak ezarritako emakida iraungitzea ekarriko du, eta ez da egongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik. Aitorpen horrek administrazio espedientea izapidetzea ekarriko du administrazio batzarreko lehendakariaren ekimenez eta auzotarren batzarrak hala adostuta, jendaurrean hilabetez egon ondoren.

12. artikulua

Ehorzte eskubideen titularrei agiri edo titulu bidez aitortuko zaie eskubide hori. Hileta eskubidea pertsona jakinari aitortzen zaio.

Ohar orokorrak

13. artikulua

Lurreko hilobietako eta horma hilobietako hileta eskubidearen titularren betebeharra da horiek behar bezain txukun, apainduta eta zainduta mantentzea. Ez zaintzeagatik aurri egoeran edo abandonatuta badaude, eta horrek arriskua edo itxura txarra sortzen badu, administrazio batzarrak behar diren neurriak hartuko ditu horiek txukun daitezen exijitzeko, betiere alde aurretik dagokion espedientea izapidetuta. Kontzejuaren betebeharra da hilerriaren mantentze orokorra egitea.

Horma-hilobi eta kolunbarioetan jartzen diren inskripzioek izan behar dituzte lehenago hildakoen oroipen plakan jarrita dauden antzeko letra, neurri eta koloreak.

Kudeaketa eta administrazioa

14. artikulua

Administrazio kudeaketa errejidore-lehendakariaren zuzendaritzapean egingo da.

15. artikulua

Emandako hileta eskubideen erregistro liburua beteko du administrazio batzarrak.

Arau haustek eta zehapenak

16. artikulua

Auzotarren batzarrak zehatuko ditu arautegi honetako aginduen arau haustek.

Xedapen gehigarria

Ordenantza honetan aurreikusi ez denerako, hilotzen sanitate alderdiei buruzko erregelamenduan eta indarrean dauden gainerako arauetan xedatutakoa beteko da.

Azken xedapena

Erregelamendu honek behin betiko onartu eta testu osoa ALHAOn argitaratu eta hamabost egun igaro ondoren izango du indarra.

Elosu, 2019ko irailaren 10a

Lehendakaria

MIGUEL ORTIZ DE ZARATE CASTAÑARES